

PACHI AGUAZILLA



IPUIÑA

Daukazun enplioan, bizi бага kejaz,
 Irabazten dozula mantentzeko eskas;
 ¿Aguazill baño Pachi, obeto etzeunke,
 Askok gura zaitu ta jartea alkate?

—Michel ¿ez aldakizu entzunda sarritan,
 Alkatetzan jornalik ez oi dala izan?
 Biziko bada bere, Pachi pobre gisan,
 Onezkero jarraitu nai dau aguazilltzan.
 Ikusi ditut sarri langillen echeak,
 Lurra jo eragiñik alkate izateak,
 Pobreak obeto dau umill bizitea,
 Ez aberatsen lanak errian artzea.

—Ori da errazoia, ori ori Pachi,
 Uste dot ez dozula buruausten gaizki,
 Baña ¿ez aldakizu nun echerik eche
 Ibilli diran pobre asko boto eske?

—Sobra bere badakit zelan boto billa,
 Ibilli oi direan ni lakoak milla;
 Sarturik bai amaika kanako alkondaran,
 Al balebe jarriko litzakez altaran.
 Orrelan dabiltz gero, gauzak errietan,
 Legoak maisu jartzen direan danetan;
 Zeiñtzuk bear leukien lenengo ikasi,
 Euren umeak zelan bear legezi azi;
 Eta gurasotzako danak alan alan,

¿Ze buru egingo dau kontzejuko salan?
 Aurtengoa da baña, danen azkarria,
 Irakurri dodana baldin bada egia;
 Iru alkate geygaz jarri dabe lista,
 Lorik bere ezin dot gauzok ikusita,
 Bata *Tripon* da, eta bestea *Ordillon*,
 Irugarrena euren lagun bat *Kiebron*,
 Orra ze gachizenak direan eurenak,
 Besterik ez dakie errian geyenak;
 Oneikaz beti deitu oi deutse kafean,
 Abadeak jarriaz bein berez kalean;
 Emendik ezautzen da ze kasta direan,
 Bestelan prueba egiñ tabernan gabea;
 Anche batu oi dira egunero beti,
 Zer diran igarriko jake berbetati;
 ¡Ay! euretatik nai nok badeusku urteten,
 Zorrez bete bear dau erri onek aurtent!

Baña, gauz au eukizu Michel isillean,
 Enpleaduok gagoz arri labanean,
 Char, on, ta erdikoaz, bear dogu bizi,
 Edozeñ alkateri chapelak erantzi;
 Ezin euki izanda gaur pazientzia,
 Kontetara beartu nachatzu egia;
 ¿Ez da bada ziertu dala miseria
 Nai nok nai izatea gobernau erria?
 Michel, oneisek dira ditugun legeak,
 Obe litzakez jarri barriak obeak;
 Buruak gura doguz guztiok gaur egiñ,
 Pobreak izan arren aberatsaz bardiñ;
 Beronek dakar gero galdurik mundua,
 Aiñsetu jakelako amaikai burua;
 Baña begira eta ikusi ardiak,
 ¿Ez dagoz baltzak eta, ez dagoz zuriak?
 Naiz ama bategandik euki jatorria,
 ¿Ez dauke desbardiña antz eta neurria?
 Nai ta ez batzuk goyan, beste batzuk beian,
 Bardiñ eziñ gindekez gu bizi lurrian.
 Jaungoikoak lege au jarririk badauka,

¿Zeñ gizonak al leike ipiñi jirauta?
 Fede bagako askok begie alegiñ,
 Bizi diran arteko badauke zeregiñ.

.

Michel, naikoa dot ta, egizu mesede,
 Berbok zeure barruan egitea gorde,
 Baña banandu baño lenago deusut nai,
 Esan alkate barri nor bear geunken bai,
 Aspaldichoan daukat botarik begia,
 Neure kontzientzian dauka merezia,
 Dalako katoliko, oituretan ona,
 Aberatsa zelan dan astia daukana;
 Au lako bat da, bear dogun personea,
 Ez besten azpikoa ezpada librea;
 Alderdi nastuetan sartuten ez dana
 Gauzak zuzen ipinten bakarrik ezpada;
 Aberatsa legeche amaurik pobrea,
 Guztientzat bardiña daukana legea;
 Eta erri onetan badaukagu jauna,
 Kontau dodazan doiak, danak dituana;
 Michel, duda bagarik, Don Juan zalduna
 Alkatetzat errian da bear doguna.
 Ez ni lako arlote buru arrodunik,
 Okotzean bizarra daukana bakarrik.

*Chepech jayo ta Miru nai daben gizonak
 Praken lekuan jantzi obe leukez gonak.*

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

